Biktoriano Iraolak idatzitako bertsoak plazaratu ditu Sendoak Auspoa bilduman

Idazle donostiarraren biografia laburra egin du Antonio Zabalak hitzaurrean

Biktoriano Iraola idazle donostiarraren bertsoz osatutako 'Au poza senti det eta beste bertso asko' liburua plazaratu berri du Sendoa argitaletxeak Auspoa bilduman. Iraolaren bertso guztiak ez jaso arren, liburuak haren bertsogintza nolakoa zen erakusten duelakoan dago Antonio Zabala, liburuaren apailatzaile eta Auspoa bildumaren arduraduna.

Juan Luis Zabala / **Donostia**

AUSPOA bildumako 243. alea izatea egokitu zaio Biktoriano Iraolaren *Au poza senti det eta beste bertso asko* liburuari. Ez da hau, dena den, Auspoa bilduman argia ikusten duen Iraolaren aurreneko liburua, bildumako bederatzigarren alea egile beraren *Oroitzak eta beste ipui asko* izan baitzen.

«Oraingo ontan, berriz, aren bertso mordo bat eskeiñi nahi dio irakurleari» Auspoa sailak, Antonio Zabalak liburuari ezarritako hitzaurrean dioenez. «Ez noski arek jarritako guziak. Alde batetik, danak biltzea eziñezkoa izango litzakelako, ainbeste moldatu zituan eta. Eta bestetik, Auspoaren liburuak beren neurri jakiña dutelako. Baiña bilduma onek, osoa ez izanik ere, ederki erakusten du aren bertsogintza nolakoa den».

Jose Manterola, Ramon Artola, Martzelino Soroa, Antonio Arzak, Kaietano Sanchez Irure, Alejandro Berroa, Felipe Kasal Otegi, Pepe Artola, Ramon Gelbenzu, Pedro Mari Otaño, Frantzisko Lopez Alen, Toribio Alzaga eta abarrekin batera, bigarren gerra karlistaren ondoren Donostian izan zen euskararen aldeko mugimenduan parte hartu zuen Biktoriano Iraolak, Antonio Zabalak bere hitzaurrean argitzen duenez.

«Donostiako erria talde edo gizaldi orrekin zorretan dagoala pentsaturik, bertako Euskararen Udal Patronatuak laguntza eman du liburu au argitaratu dedin», ohartarazten du, bere esker ona agertuz, Zabalak hitzaurrearen amaieran.



Biktoriano Iraola Aristigieta (Pasai Donibane, 1841-Donostia, 1919).

Bertsoak, ipuinak, antzerkia, marrazkiak... eta moldiztegia • Pasai Donibanen sortu zen Biktoriano Iraola Aristigieta, 1841ean, baina Donostian bizi izan zen beti, Legazpi kalean. Moldiztegi bat zeukan etxean eta hantxe egiten zuen lan. *Baserritarra* eta *El thun thun* aldizkariek Iraolaren moldiztegian inprimatu ohi ziren, eta bertso paper ugari ere haren etxetik irten zen argira. Inprentako makinak mugitzeko, «asto bat ibili arazten zuten bueltaka etxeko patioan», dio, bitxikeria gisa, Zabalak.

Beste anekdota bat ere kontatzen du Zabalak hitzaurrean: Karlistek Arratzaindik Donostiara jaurtitako granadetako bat Iraolaren etxean sartu zen, eta beste bat haren etxetik gertu erori, baina ez ziren lehertu granada horiek, eta Iraolak etxean gorde zituen oroigarritzat, bakoitzari erori zeneko data idatziz.

Donostiako zinegotzi izan zen behin baino gehiagotan Biktoriano Iraola, eta Alderdi Ederreko tamarindoak ekartzearen alde saiatu zirenen artean izan zen.

Euskal-Erria, *Ibaizabal*, *Euskalzalea*, *Baserritarra*, *Euskal Esnalea* eta *El thun thun* aldizkarietan bertso sorta ugari eman zuen argitara Iraolak. Jenero guztietako bertso jarriak ziren Iraolarenak: liriko edo poetikoak, umorezkoak, epigramak, narratiboak, alegiak... Hainbat sari irabazi zuen eta baita zenbait liburu argitaratu ere.

Hitz lauz ere ugari idatzi zuen, hala ipuinak nola antzerkiak. Antzerkigintzan komediak, zarzuelak zein bakarrizketak landu zituen: *Bi itxuak*, *Petra txardinsaltzaillia*, *Ardita beti ardit*, *Pasaian*, *Gabonetan*, *Txomin Donostiyan*, *Zeladore baten estuasunak*, *Joxemaritarrak*, *Xordo*, *Leokadia*, *Pulpuba*, *Onentzaro gabe*, *Ergobian*, *Ixkiña Mutrikun*...

Idazteaz gain, marrazkiak egitea ere maite zuen Iraolak. *Euskal-Erria* eta *El thun thun* aldizkarietan garai hartako hainbat euskaltzaleren erretratuak egin zituen, Bilintx, Ramon Artola, Sanchez Irure, Juan Inazio Urranga, Pedro Mari Otaño, Juan Pedro Otaño eta Udarregirena beste batzuen artean.

Iraola 1919ko abuztuaren 19an hil zen, Donostian. *Euskal Esnalea*-k haren heriotzaren ondoren egindako goraipamenak ere irakur daitezke Antonio Zabalak *Au poza senti det eta beste bertso asko* liburuari ezarritako hitzaurre mamitsuan.

Biktoriano Iraolaren bertsoekin gozatzeko ezezik XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako Donostia nolakoa zen jakiteko aukera egokia ere ematen du Antonio Zabalak prestatu eta Sendoa argitaletxeak argitara emandako liburuak. ✗

Auspoa bildumako bederatzigarren alea

Biktoriano Iraolaren Oroitzak eta beste ipui asko liburua izan zen

laburrean

■ Kierkegaarden obra osoa kaleratuko dute Danimarkan

SOEREN KIERKEGAARD filosofoaren obra osoak, 55 liburukitan, argia ikusiko du datozen urteetan. Lehen bost liburukiak apirilean argitaratuko dituzte eta azkena, 2005. urtean. Proiektu anbiziotsu hau Kopenhageko Soeren Kierkegaard Ikerketa Zentroak jarri du abian. Bertako zuzendari Niels Joergen-ek adierazi duenez, 1813tik 1855era bizi izandako filosofo honen lan asko eta asko daude oraindik argitaratu gabe. ✗

■ Woody Allenen kontra jarduten du Mia Farrowek bere liburuan

MIA FARROW-EK bere memoriak idatzi eta argitaratu ditu EEBBetan. Hainbat urtetan bikotekide izan duen Woody Allen zinemagilearen kontra gogor jarduten du liburuak eta, besteak beste, dio adoptatu zuten Dylan alabarekin harreman sexualak izan zituela pentsatzeko arrazoiak badituela. «Woody Allenekin bizi izan nintzenean, hiru kideko bikotea osatzen genuen: ni neu, Woody eta haren sikiatra», esan zuen Farrowek liburua aurkeztean. «Woody ez zen gai ezta maindire batzuk erosteko ere hari galdegin gabe». ✗

■ Kataluniako Antzoki Nazionala Europako onena izango da

KATALUNIAKO Antzoki Nazionala datorren irailaren 11n zabalduko da, eraikitze lanak amaituta. 900 milioi pezeta gastatu dira (36 milioi libera hor nonbait) eszenario nagusiaren horniketan eta makinerian. Puntako teknologia jarri dute bertan, eta makina guztiak ordenadore nagusi baten bitartez maneiatzen dira. Europako antzoki modernoena eta onena izango da horrenbestez. Ez da beste inongo antzokitan horrelako teknologiarik erabiltzen. ✗

IRAGARKI MERKEAK (943) 300222

66 x 69
4 MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: **10.400**
Astea (6 egun): **8.200**
2 aste: (12 egun): **7.400**
Hilabetea (24 egun): **5.200**

VIAJES IBERIA SKI 97

EGUNEKO ESKIA
IRTEERAK LARUNBAT ETA IGANDEETAN
GOURETTE → 4.900 pta.
CAUTERETS → 4.900 pta.
CANDANCHU → 4.900 pta.
Barne: Autobusa + Forfait + Gida
Irteerak Donostia, Pasaia, Errenteria eta Irundik

ESKAINTZAK
ASTEA AUTOBUSEAN
BAQUEIRA (Otsailaren 16tik 21era) → 42.900 pta.
Barne: Autobusa + 5 gau (M.E.) + forfait: 5 egun
VAL THORENS (Otsailak 21- Martxoak 2) - (Otsailak 28 - Martxoak 9) - (Martxoak 7-16) → 53.450 pta.
Barne: Autobus literaduna Donostiatik + 7 gau (Soloval/El Portillo apartamentuak) + forfait Val Thorens 6 egun + tasak eta maindireak

GALDETU GURE ASTEBURUEZ: JACA, CANDANCHU, ASTUN ETA BAQUEIRA-BERET

VIAJES IBERIA
Aita Larroka, 7 - Tel.: 27 26 00
Txurruka, 8 - Tel.: 42 35 50
DONOSTIA

VIAJES IBERIA
Gipuzkoako etor., 6
Tel.: 61 95 86
IRUN

Lehengo TEP BIDAIAK
Urbieta, 59 - Tel.: 46 06 88
San Martzial, 1 - Tel: 42 00 71
DONOSTIA

VIAJES IBERIA
SKI 97
BAQUEIRA ASTEBURUA
(Otsailak 15-16)
13.900 pta.
Barne: Gaua (M.E.) gela bikoitzean, Viella hotelean + forfait: 2 egun Baqueira-Bereten
PLAZA MUGATUAK!
DONOSTIA
Aita Larroka, 7 - Tel.: 27 26 00
Txurruka, 8 - Tel.: 42 35 50
Urbieta, 59 - Tel.: 46 06 88
San Martzial, 1 - Tel: 42 00 71
IRUN
Gipuzkoako etor., 6
Tel.: 61 95 86

Titiriteroak


908772347
(943)467597